

Usurbilgo Udala

## 2020KO URRIAREN 29AN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA

### BERTARATUAK

#### Alkate-Lehendakaria

Agurtzane Solaberrieta Mesa

#### Zinegotziak

Beñat Larrañaga Urdanpilleta  
Lur Etxeberria Gurrutxaga  
Joxe Mari Iribar Zapirain  
Luken Arkarazo Silva  
Oskar Santamaria Pikabea  
Itziar Basterrika Unanue  
Josune Urkola Larrarte  
Mirari Azurmendi Sorazu  
Carlos Pérez Fraisoli  
Francisco José (Patxi) Suárez Pérez

**Idazkaria:** Irantzu Arrizabalaga Gainza.

**Ez dira bertaratu:** Aroa Etxeburua Ugartemendia eta Andoni Atxega San Sebastian.

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Usurbilen, 2020ko urriaren 29an arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Agurtzane Solaberrieta Mesa izan da Batzarburua.


### 1.- AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA:

**\* 2020/07/23ko bilkurako aktaren onespena.**

Batzarkideek, 2020ko uztailaren 23ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

**\* 2020/09/24ko bilkurako aktaren onespena.**

Batzarkideek, 2020ko irailaren 24ko bilkurako akta aho batez onartu dute.



Usurbilgo Udala

## **2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2020KO IRAILAREN 1ETIK URRIAREN 9RA (2020/671-2020/787).**

Alkatetzak 2020ko irailaren 1etik urriaren 9ra bitartean (2020/671-2020/787) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

## **3.- USURBILGO UDALAREN ETA EUSKO JAURLARITZAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ADMINISTRAZIOARI ZUZENDUTAKO IDAZKIAK UDAL ERREGISTROAN AURKEZTEKO.**

Alkateak adierazi du hitzarmen honen bitartez Euskal Autonomia Erkidegoaren administrazioari zuzendutako idazkiak herritarrek udal erregistroan aurkeztu ahal izango dituztela, hala ere, jada egiten ari diren zerbait dela gaineratu du.

Idazkariak azaldu du honen bitartez herritarrei Eusko Jaurlaritzan aurkeztu behar dituzten idazkiak udal erregistroan erregistratzeko aukera ematen zaiela.

Batzarkideek, Antolakuntza batzordearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Esp.zk.: ID.21/2020-0124

30/1992 Legearen 38.4.b) artikulua arabera, Administrazio Publikoari zuzendutako eskabideak, idazkiak eta jakinarazpenak edozein administrazio-organotako erregistroan aurkez daitezke, tartean, udaletako erregistroetan. Hala ere, azken kasu honetan, dagokion hitzarmena sinatu beharko da.

Aipatutako lege-xedapen hori betetzea eta herritarren eta administrazio publikoen arteko harremanak erraztea da hitzarmen honen helburua.

Hitzarmenak udal honek eta EAEko Administrazioak hartzen dituzten konpromisoak jasotzen ditu.

Hitzarmen honen indarraldia Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean erregistro elektronikoa buruz jasotako xedapenak indarrean jartzean amaituko da, hau da, erregistroen interkonexio-sistema, eta muga 4 urtekoa da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean zenbatzen hasita. Egungo egoera da epe horrek hainbat luzapen izan dituela eta momentu honetan indarraldia 2021eko apirilaren 2ra artekoa da.

Hau guztia horrela, Antolakuntza Batzordeak, 2020ko urriaren 20an egindako bilkuran, Agurtzane Solaberrieta, Beñat Larrañaga eta Francisco José (Patxi) Suárezen aldeko botoarekin eta Josune Urkolaren abstentzioarekin luzatutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:



Usurbilgo Udala

## ERABAKIA

**LEHENENGOA:** Euskal Autonomia Erkidegoaren administrazioari zuzendutako idazkiak udal erregistroan aurkezteko Usurbilgo Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lankidetzaren hitzarmena onartzea.

**BIGARRENA:** Alkateari eskumena ematea, Udalaren izenean, aipatutako hitzarmena sinatzea.

Bozketa honela izan da:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Pérez Fraisoli eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

### 4.- MOZIOA: MARTIN VILLA “PERSONA NON GRATA” IZENDATZEA.

Beñat Larrañagak mozioa irakurri du.

Josune Urkolak adierazi du mozioarekin ados daudela baina 3. puntuaren erantsiko lukeela dio “frankismo garaian zein ostean giza eskubideen eta gizateriaren aurkako krimenak eragiteagatik epaituak eta kondenatuak izan diren edota izango diren pertsona guztiak persona non grata izendatzea udalerrin honetan”.

Alkateak esan du ez dakiela bozketa momentuan dagoen puntu bat aldatu ote daitekeen.

Idazkariak argitu du egiten duten emendakina bozkatu eta onartzen baldin bada posible izango litzatekeela.

Alkateak esan du orain arte tamalez frankismoak eragindako krimenik ez dela epaitu, beraz, ez dakiela horrek zer aportatzen duen. Josuneri galdetu dio zer dela-eta egiten duten hau gehitzeko proposamena.

Josune Urkolak erantzun dio zabalago hartzen duelako, besterik gabe.

Alkateak esan du ez dela ez onartzeagatik, baina uste du mozioari ez diola ezer berririk eman eta gainera ez dela guztiz zuzena, orain artean ez baita epaitu eta kondenaturik izan.



Usurbilgo Udala

Josune Urkolak esan du aurrerantzean gertatu daitekeela.

Patxi Suárezek hitza hartu du eta bere botoaren zentzua adierazteko honako hitzak irakurri ditu:

*“Justitzia Unibertsalari dagokionez, Fiskaltza Nagusiak Maria Servini epailearekin modu aktiboan kolaboratu zuen, eta gogoraztea gustatuko litzaidake memoriaren arloan gobernu sozialista batek “Ley de Memoria Histórica” egin zuela eta egungo gobernuak “Ley de Memoria Democrática” egin duela.*

*Bestalde, 1977ko Amnistiaren Legea guztientzat izan zen, nahiz eta batzuetan niri ez gustatu hortaz nor aprobetxatzen den, Martín Villa adibidez, zeren bere defentsan lege horretaz aprobetxatzen da.*

*Mozioarekin bat nator gizateriaren aurkako delituak kondenatzearekin, baina delitu mota asko daude, baita delitu mota hori egin zutenak ere, eta ez dut “persona non grata” izendatzea proposatuko, besteak beste, uste dudalako ez dugula inoiz bukatuko eta interes altuagoa dugula benetako elkarbizitza eta normaltasuna lortzearekin, bakea lortu eta gero.*

*Bestalde, ez nago mozioaren dialektikarekin ados, askotan mozioan “Transizio deiturikoa” esaten da, baina ni ez nago ados, badakit transizioa ez zela perfektoa, eta oraindik gure demokrazia, beste demokrazia batzuk bezala, hobetu ahal da, demokrazia bizia baita, eta zaindu eta egokitu behar da. Hala ere, Transizioari esker gaur bildu gaitezke, guztiari buruz hitzegiz dezakegu eta politika egin dezakegu espetxera joan gabe.*

*Hala ere, ez dakit Martín Villa judizialki kondenatua izango den edo ez, baina seguraski politikoki Martín Villak ez zuen ondo egin bere karguan.*

*Nire familiakoek, ziur aski zuen familiakoek bezala, hainbeste eman zuten bere garaian demokrazia lortzeko.*

*Dialektikarekin ados egon ez arren, abstenitu egingo naiz.”*

Alkateak adierazi du, oker ez badago, Espainiako gobernuak Patxi aipatu duen bezala beste memoria lege bat onartzeko proposamena egin du. Espainia dela dio, Kanboiaren atzetik, mundu osoan fosa komun gehien dituen herrialdea. Gerra izan eta 80 urte geroago errepide bazterretan oraindik hildakoak ditugula salatu du, eta horrek adierazten duela dio Espainian zer nolako borondatea egon den fusilatu zituzten pertsona guzti horien memoria errekupeartzeari begira amaiera duin bat emateko. Bestetik, legea behingoz martxan jartzea eskatu du, zeren orain arte Euskal Herrian horren ardura hartu dutenak izan dira herri eragileen eskutik egin direnak, Aranzadi kasu. Inongo instituziok ez duela hartu horretarako ardurarik salatu du.



Usurbilgo Udala

Patxik Amnistiaren Legea aipatu duela esan du, eta adierazi du lege honek trantsizioarekin ez zuela inongo hausturarik ekarri. Amnistia Internacional berak ere, besteak beste, salatu izan duela dio Amnistiaren Legea.

Era berean, alkateak dio Patxik esan duela trantsizioa deiturikoarekin ez dagoela ados, horren aurrean aipatu du trantsizio hark frankismoarekin ez zuela inolako hausturarik ekarri, oraindik ere indarrean daudela dio frankismo garaiko egiturak, Errege-etxea eta Audientzi Nazionala, adibidez. Patxik aipatu du trantsizioari esker denok egin dezakegula politika, oso urrutira joan gabe hemen ilegalizazio-lege bat egon zela eta alkatea bera politika egiteagatik atxilotua eta espetxeratua izan zela gogoratu du. Bestalde, atzo bertan Katalunian Guardia Zibilak hainbat pertsona atxilotu zituela esan du, prozesu independentista bat bultzatzeagatik. Beraz, gaur egun esatea trantsizioak ahalbidetu duela herri honetan politika egitea eta ideia guztiak defendatu ahal izatea, alkateak berak bere azalean bizi izan zuela dio hori ez dela horrela lehen aipatu duen bezala espetxeratua izan baitzen eta atzoko Kataluniako atxilotetak ere horren adibide.

Alkateak jarraitu du esanez pena ematen diola, zer pentsatuko luketen dio alderdi sozialistako frankismoaren aurka borrokatu zuten gizon-emakume haiek ikusiko balute Felipe Gonzalez edo Zapatero bera horrelako gutun bat sinatzen.


Batzarkideek, Antolakuntza batzordearen irizpena aztertu dute eta mozioa gehiengoz onartu dute, honela dio:

“Estatu espainiarraren inpunitate politika, diktadura frankistan eta trantsizio politiko deiturikoan gauzaturiko gizateriaren aurkako krimenen ikerketa eta auzipetze ezari dagokionez, gaur egungo arazoa da, gizartean eta gutxieneko estandar demokratikoak bete nahi dituen Estatu ororen oinarritzko zimenduetan eragina duena.

Rodolfo Martín Villa politika eta errepresio frankistaren egile nagusietako bat izan zen 60 eta 70eko hamarkadetan, SEUko buru nazional, sindikatu bertikaleko idazkari eta Bartzelonako gobernari zibil izan baitzen. Gero, Arias Navarroren gobernuarekin Harreman sindikaletarako zein gobernazio ministro eta, ondoren, Suarezren gobernuarekin Barne ministro izan zen. Haren aginte pean, ministro zela 1975ko abendua eta 1979ko apirila bitartean, errepresio odoltsuaren erantzule izan zen, krimen larriak gauzatu baitziren: Gasteiz (1976), amnistiaren aldeko astea edota Iruñea (Sanferminak 1978), Euskal Herrian, eta baita hemendik kanpo, Madril, Malaga, Tenerife, Bartzelona, Alacant....

Martin Villa inputatua izan da, justizia unibertsalaren printzipioa aplikatua, Argentinako Errepublikaren Krimen gaietarako eta zentzategi federaleko 1. Epaitegi Nazionalen gizateriaren aurkako krimenak egotzita, haren jarduna giza eskubideen urraketa masibo, sistematiko eta antolatuen esparruan gauzatu baitzen, berrogei urtetan zehar, diktadura frankistan, eta Trantsizio deiturikoan.

Gizateriaren aurkako krimenak direnez, preskripzioa ez da ezartzen, eta aipaturiko delituak ez daitezke ez amnistiatu, ezta indultatu ere. Horregatik, Argentinako agintari judizialek haren estradizioa eskatu zioten Gobernu espainiarrari. Ministro Kontseiluaren 2015eko martxoaren 13ko Erabakiak ukatu zuen eskaera.



Usurbilgo Udala

Dena den, eta aipaturiko kereilaren tramitazioari utzi gabe, Estatu espainiarrak Giza Eskubideen eta nazioarteko zuzenbide penalaren arloan hartutako eginbeharrak behar bezala betetzeko, beharrezkoa da dagokien prozesu judizialak hastea, Martin Villak izan dituen erantzukizun penalak zehaztu eta garbitzeko.

Ez dirudi ordea horretarako asmoa duenik, Espainiako aginte eremu ezberdinetatik kereilaren tramitazioa galarazten saiatzeaz gain, irailean Maria Servini epaileak Martin Villari deklarazioa hartu bezperan, Gobernu presidente izandakoek eta beste zenbait pertsona esanguratsuk gutuna atera zuten Martin Villari babesa eskainiz, frankismoaren biktimenez iraingarria eta justiziaren jardunean eragiteko ahalegin onartezina.

Aurrekoa oinarri harturik, Usurbilgo Udalaren Osoko Bilkurak honako mozioa onartu du:

## **MOZIOA**

1.- Gobernu espainiarra premiatu 2015eko martxoaren 13an Ministro Kontseiluak hartutako erabakia bertan behera uzteko, alegia Maria de Servini epaileak Martin Villari deklarazioa hartzeko egindako estradizio eskariari zegokiona.

2.- Nazioarteko Zuzenbidearen “estraditatu edo epaitu” printzipioa aplikatuz, Estatuak behar bezalako neurriak har ditzan auzitegi espainiarrek diktadura frankistan eta Trantsizio politiko deitutakoan gauzatutako gizateriaren aurkako krimenak ikertu eta epaitu ditzaten, eta, bereziki, Martin Villaren erantzukizuna izan daitezkeenak.

3.- Udalerri honetan Martin Villa pertsona “non grata” deklaratzeko.

4.- Maria Servini epaileari frankismoko krimenen zigorgabetasunarekin amaitzeko egiten ari den lana eskertu, Gobernu Espainiarrak jarritako oztopo guztien ondotik, presidente izandakoek eta beste zenbait ordezkari gutun bidez Martin Villari eman babesa salatu eta Argentinako epaitegia egiten ari den lanaren jarraitzea eskatu.

5.- Erabaki hau ondoko hauei helaraztea: Justizia Ministerio espainiarrari, Auzitegi Nazionalaren buruari, Auzitegi Gorenaren buruari, Estatuko Fiskaltza Nagusiari eta Argentinako Errepublikaren Krimen gaietarako eta zentzategi federaleko 1. Epaitegi Nazionalari.”

Bozketa honela izan da:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea eta Itziar Basterrika Unanue.

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Pérez Fraisoli eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.



Usurbilgo Udala

## **5.- MOZIOA: URRIAK 17, POBREZIA DESAGERRARAZTEKO NAZIOARTEKO EGUNA.**

Alkateak adierazi du aurreko plenoan mozio bat aurkeztu zutela, baina EAJren eskariz puntua mahai gainean utzi zutela gaia hobeto lantzeko asmoarekin. Gaineratu du aurreko Antolakuntza batzordean luze jardun zirela gai honen inguruan eta egun hauetan hainbat testu elkartrukatu dituztela adostasuna lortzeko helburuarekin.

Mozioa batzorde batek diktaminatu gabe datorrenez, batzarkideek aho batez plenoan tratatzea adostu dute.

Jarraian, Itziar Basterrikak mozioa irakurri du.

Batzarkideek mozioa aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:


“Zioa

Urriaren 17an, pobrezia desagerrarazteko nazioarteko eguna ospatzen da. Nazio Batuen ‘Muturreko Pobrezia eta Giza Eskubideei buruzko Printzipio Gidarietan’ jasotzen den moduan: “aurrekaririk gabeko garapen ekonomiko, bitarteko teknologiko eta finantza-baliabideen maila duen mundu honetan, eskandalu morala da milioika pertsona muturreko pobrezian bizitzea”. Gure gizarteari ez zaio arrotza “eskandalu moral” hau.

Covid-19aren krisia hasi aurretik, datu eta adierazle gehienek argi erakusten zuten herritarren bizi-baldintzek okerrera egin zutela. Egia da herritarren zati batek Atzeraldi Handia ‘gainditu’ zuela, baina beste zati batek ez zuen egin, eta are garrantzitsuagoa dena, egitekin gero eta urrunago zegoen. 2018an, Euskal Autonomia Erkidegoan 270.294 pertsona ongizate-gabezia egoeran zeuden, duela bi urte baino 40.000 gehiago, eta 130.965 pertsona zeuden benetako pobrezian, duela bi urte baino 8.000 gehiago. Aurreko guztiari gehitu behar zaio arazo nagusietako bat zela lau familietatik batek ez zuela gaitasunik epe ertain eta luzera bizi-baldintza duinak bermatzeko; gure herrian ehunka mila pertsonak ezin zioten aurre egin ezusteko bati, Covid-19aren krisiak eragindakoa, esaterako.

Bestalde, genero, adina eta jatorria faktore erabakigarriak dira pobrezia egoeran aurkitzeko. 2008an, benetako pobrezia-kasu guztien % 33,9 emakumeak buru ziren familietan kontzentratzen ziren, eta 2018an, hau da, 10 urte geroago, % 50,6. Adin-taldeei erreparatzen badiegu, 15 eta 24 urte bitarteko gazteen egoera da azken urteetan gehien okertu dena. Posizio sozial desberdinen arteko ‘igogailuek’ funtzionatzeari utzi diotenez, pobrezia gurasoengandik seme-alabengana heredatzen da; hau da, pobrezia eragin berezia eta erabakigarria du haurtzaroan. Eta, gainera, larri zeuden kolektibo hauek bereziki astindu ditu Covid-19aren krisiak.

Baina pobrezia ez da alderdi ekonomikora mugatzen, Nazio Batuen Printzipio Gidarietan jasotzen den moduan “dimentsio anitzeko fenomeno da, eta diru-sarreraren eta duintasunaren bizitzeko oinarritzko gaitasunen falta barne hartzen du (...) muturreko pobrezia eragin berezia nagusia eskubide zibil, politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalen askotariko urraketak eta elkarri lotutakoak dira”. Beraz, eman beharreko erantzunak izaera dimentsioaniztuna



Usurbilgo Udala

kontuan izan behar dute pertsona guztien autonomia materiala eta erabateko integrazioa lortzeko.

Pobreziaren irauntzak gizarte osoari eragiten dion arazoa da. Arazo publikoa da. Eta, beraz, politikoa. Azken urteetan gurean pobreziari aurre egiteko ezagutu ditugun politika publikoek trantsizio baten beharrea daude. Urgentziazko erronka izan behar du; aurkitzen garen krisia ezin da aitzakia izan, aitzitik, jarduteko pizgarria izan behar du, gizarte bidezkoa, zuzena eta solidarioa lortu nahi badugu. Helburu horretan gure konpromisoa irmoa da. Euskadi komunitate aintzindaria izan da gizarteratzeko politikak abiaraztean, pobreziaren kontrako borrokan eta gizarte-zerbitzuen garapenean. Alabaina, aipatutako konpromiso horri erantzuteko, politika sozialak indartu eta bermatu behar ditugula pentsatzen dugu, batez ere gizarteratze eremuan, gizarte-zerbitzuetan eta etxebizitzan eragiten duten horietan eta pobreziaren kontrako borrokan inpaktu adierazgarria duten haietan, pertsona zaharrengan, familiengan eta haurtzaroan, baita pertsona migratzaileengan ere.

Horregatik guztiagatik, Usurbilgo Udaleko Osoko Bilkurak adierazten du:

1.- Pobrezia ezabatzeko konpromiso irmoa adierazten dugu. Horregatik, honi aurre egiteko beharrezkoak diren neurri ekonomiko, sozial eta fiskalak hartzeko prestutasuna agertzen dugu, orain artean bezala, besteak beste, Gizarte-Larrialdietarako Laguntzak funts propioekin osatzen jarraituko dugu.

2.- Covid-ak gure komunitatearen zaugarritasun soziala eta pobrezia egoerak larriagotu egin ditu eta, horregatik, erakunde publiko guztien lehentasunezko jarduera izan behar du ezinbestean. Horretarako, ezinbestekoa da erakunde guztiek politika publikoak indartzeko konpromisoa hartzea, enplegua, ekonomiaren errekonberazioa eta gizarte politikak herriaren berreraikitze sozial eta ekonomikoaren aldatetarako palankak bilakatuz. Norabide horretan, Jaurlearitza eskatzen diogu premiazko neurriak hartzeko gure babes-sistema (Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta DSBE/ Etxebizitzarako Prestazio Osagarria EPO/ Gizarte Larrialdietarako Laguntzak GLL) Covid-19aren krisiaren ondoriozko beharretara egokitzeko. Eta epe labur eta ertainera, banakotasunaren, estaldura unibertsalaren eta baldintzarik ezaren printzipioetan oinarritutako babes-sistema baten aldeko pausuak eman ditzen.

3.- Gizartean pertsonen erabateko integrazioa lortzeko Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zentraltasuna aldarrikatzen dugu. Horregatik, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuak garatzeko eta indartzeko konpromisoa hartzen dugu, eta konpromiso honi atxikitze eskatzen diegu gainerako erakundeei.”

## **6.- GALDERA-ESKAERAK.**

Patxi Suárezek proposamen bat duela adierazi du. Ez dakiela dio hurrengo plenoan zein egoeretan egongo diren, baina semaforo gorrian daudela eta bere ustez hobeto izango dela dio plenoa telematikoki egitea.

Alkateak erantzun dio beraiek ere horretaz pentsatzen egon direla eta hurrengo Antolakuntza batzordean hitzegingo dutela adierazi du.





Usurbilgo Udala

Beñat Larrañagak jakinarazi du hurrengo pertsonal batzordea agian atzeratu egingo dela, lanketa bat egiten ari baitira langileen egoera berri hauek arautzeko. Asmoa dela dio proposamena gainontzeko taldeei eta langileen ordezkariari aurkeztea.

**Alkateak batzaraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 18:45etan eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.**